

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 2623

*EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 7koa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez handitzen baita agindu honetan adierazitako zenbatekoa: Agindua, deialdia egiten duena eskola-garraioko esleipen indibidualizatuak egiteko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, baldin eta ezgaitasunen bat badute eskubidea ematen diena eskola garraioa izateko Eskola-garraiokari buruzko 69/2015 Dekretuaren arabera. 2023-2024 ikasturtea.*

Hezkuntzako sailburuaren 2023ko urriaren 3ko Aginduaren bidez, desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako eskola-garraioko banakako esleipenen deialdia egin da, ikasle horiek dagokien ikastetxe publikoan edo Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek esleitura itundutako ikastetxe publiko edo pribatuan eskolatuta badaude eta sailaren eskola-garraioa erabili ezin badute 2023-2024ko ikasturtean.

Agindu horretan, baliabide ekonomikoei buruzko 3. artikuluan, hau dago ezarrita:

1.– Agindu honetan araututako laguntzak finantzatzeko, 5.417.518 euro bideratuko dira.

2.– 1. paragrafoan adierazitako zenbatekoa handitu ahal izango da, laguntzak jasotzeko eskubidea duten eskabideen zenbatekoa kontuan hartuta, Hezkuntza Sailak konprometitu gabeko aurrekontu-baliabideen arabera. Halakorik gertatuz gero, Hezkuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez jakinaraziko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Hezkuntza Sailak horretara bideratutako 5.417.518 euroko guztizko zenbatekoa ez da nahikoa eskabide guztiei erantzuteko; beraz, beharrezkoa da zenbateko hori handitzea.

Hori dela eta, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak proposatuta, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 200.000 euro gehitzea Hezkuntzako sailburuaren 2023ko urriaren 3ko Aginduaren 3.1 artikuluan kontsignatutako zenbatekoari; horrenbestez, deialdi horretara, guztira, 5.617.518 euro bideratuko dira.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea.

#### AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 7a.

Hezkuntzako sailburuordea,  
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.